

Jarduera fisikoa, guztion osasuna eta ongizatea hobetzeko tresna

(Physical activity a tool to improve health and wellbeing for everybody)

Jon Irazusta*, Begoña Sanz, Ana Rodríguez-Larrad

Fisiologia Saila, Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea, UPV/EHU, Leioa, Bizkaia

LABURPENA: Nazio Batuen Garapen Jasangarriko 2030 Agendaren hirugarren helburua guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea da. Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, jarduera fisikoa munduko hilkortasun-arriksua murrizten duen faktore garrantzitsuetako bat da. Lan honen helburua honako hau da: jarduera fisikoa eta haren modu egituratuak —hots, ariketa fisikoa— pertsona ororentzat dituen onurak laburbiltzea eta pertsona nagusietan eta populazio zaurgarrietan dituen eraginetan sakontzea. Gaur egun, jakina da jarduera fisikoa eta ariketa fisikoa eraginkorrak direla gaixotasun kroniko nagusien prebentzioan eta tratamenduan. Aldi berean, pertsonen ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzen laguntzen dute. Oro har, ikertzaileak bat datoz jarduera fisikoa eta ariketa fisikoa onura nabariak sortzen dituztela adin eta egoera fisiko ia guztietako pertsonetan, baita hauskor eta zaurgarrietan ere. Azken urteetan, aurerrapen handiak egin dira talde horiei buruzko ikerketan. Orain dela gutxi arte, oso intentsitate baxuko mugikortasun-programak proposatzen zitzaizkien, eta gaur egun frogatu da indarra eta erresistentzia aerobikoa intentsitate handiagoan lan-tzeak onura gehiago dakarzikela. Jarduera fisikoaren eta ariketa fisikoaren eragina ez da arlo fisikora mugatzen, zeren behatu baita eragin positiboa duela kognizioan, ongizate emozionalean eta gizarte-sareen eraketan ere. Hala ere, jarduera fisikoa onuragarria izateko, banakoari egokitu, progresiboa eta egingarria izan behar du. Etorkizunerako erronka zera da: pertsona guztiek beren neurriko jarduera fisikoa egiteko aukera izatea, guztien osasuna eta ongizatea hobetzeko. Horrek Nazio Batuen 2030 Agendaren hirugarren helburua betetzen lagunduko digu.

HITZ GAKOAK: jarduera fisikoa, ariketa fisikoa, osasuna, ongizatea, 3. GJH.

ABSTRACT: The third goal of the United Nations 2030 Agenda for Sustainable Development is to ensure healthy lives and promote wellbeing at all ages. According to the World Health Organization, physical activity is an important factor that reduces the risk of global mortality. The aim of this revision is to summarize the benefits of physical activity and exercise and to delve deeper on their benefits on elder and vulnerable population. Nowadays, it is widely accepted that physical activity and exercise have proved their effectiveness in the prevention and treatment of the main chronic diseases. At the same time, they contribute to improving well-being and quality of life. In general, researchers agree, physical activity and exercise have benefits for people of all ages and almost all physical conditions, even the most frail and vulnerable. In these groups, there have been important advances in research in the last few years. Until recently, very low intensity mobility programs were proposed to them and today it has been shown that working out on strength and aerobic endurance at higher intensities gives them greater benefits. The impact of physical activity and exercise is not limited to physical parameters, as it has been observed that it also has positive effects on cognition, emotional well-being and the formation of social networks. However, to be beneficial physical activity must be individually adapted, progressive and feasible. The challenge for the future is that each individual has the opportunity to perform tailored physical activity to improve health and well-being of everybody. This will bring us closer to achieve the third goal of the United Nations 2030 Agenda.

KEYWORDS: physical activity, physical exercise, health wellbeing, 3rd SDG.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Jon Irazusta, Fisiologia Saila, Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea, UPV/EHU, Leioa (Bizkaia). – jon.irazusta@ehu.eus – <https://orcid.org/0000-0002-6763-8602>.

Nola aipatu / How to cite: Irazusta, Jon; Sanz, Begoña; Rodríguez-Larrad, Ana (2021). «Jarduera fisikoa, guztion osasuna eta ongizatea hobetzeko tresna»; Ekaia, ale berezia 2021, 53-72. (<https://doi.org/10.1387/ekaia.22091>).

Jasotze-data: 2020, urriak 02; Onartze-data: 2021, azaroak 03

ISSN 0214-9001 - eISSN 2444-3255 / © 2021 UPV/EHU



Lan hau Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago

1. SARRERA

Gure gizartean azken bi mendeetan osasunaren arloan eta beste esparru batzuetan izan diren aurrerapenak pertsonen bizi-itxaropena handitu dute. Prozesu hori bereziki nabaria izan da herri garatuenetan, baina munduko herrialde gehienetan gertatu da. Horren ondorioz, gizakiaren bizi-itxaropena XX. mendearen hasieran 32 urtekoa izatetik gaur egun 71 urtekoa izatera igaro da [1]. Aldaketa positibo horrekin batera, gaixotasun kronikoek gora egin dute [2]. Horregatik, bizi-itxaropenean gertatu den igoeraren zati adierazgarri bat gero eta urte gehiago desgaitasunarekin [3] edo gaixotasun kronikoekin [4] bizitzeari zor zaio. Uste da horrek eragina izan dezakeela pertsonen bizi-kalitatean eta ongizatean.

Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren hirugarren helburua guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea da. Helburu horren ataletako batean, gaixotasun kronikoen prebentzioa eta osasun mentala eta ongizatea sustatu nahi dira [5].

Jarduera fisikoa gorputzak bere borondatez egiten duen mugimendua da, eta energia kontsumitzen du. Ariketa fisikoa, berriz, jarduera fisikoren modalitate programatu eta egituratu bat da, helburu zehatz batekin edo gehiagorekin egiten dena. Adibidez, gluzemia eta tentsio arteriala kontrolatzeko egunero 30 minutuz erritmo bizian bizikletaz ibiltzea ariketa fisikotzat har genezake. Bi kontzeptuak modu nahasgarrian erabili izan dira, jarduera fisikoak ariketa fisikoa barneratzen baitu.

Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, jarduera fisikorik eza da munduan hilkortasun-arriskua handitzen duten faktore garrantzitsuenetan laugarrena, eta kalkulatzen da heriotza goiztiarren % 9ren eragile zuzena dela [6]. Jarduera fisikoaren kopurua gaixotasun kronikorik gabeko bizi-itxaropenarekin lotzen da [7, 8]. Horrek eragin ekonomiko zuzena du osasun-sistemetan. Hala, 2013. urtean, kalkulatzen zen 50 bilioi dolar inguruko kostu gehigarria sortu zuela jarduerarik ezak [8].

Nahiz eta jarduera fisikoaren onurak populazio orokorrean ezagunak izan [11], orain dela gutxi arte zientzialarien artean ez zegoen ahobatezko-tasunik zenbait populazio nagusi eta zaurgarritan zituen eragin onuragarriei buruz (1. irudia). Horrez gain, ez zegoen argi zer jarduera fisiko mota eta zenbat jarduera egin behar zuten populazio talde horiek.

Lan honen helburua honako hau da: jarduera fisikoak eta ariketa fisikoak pertsona ororentzat dituzten onurak laburbiltzea eta pertsona nagusietan eta bereziki populazio zaurgarrienetan dituzten eraginetan sakontzea. Horrez gain, etorkizunerako ditugun erronkak aipatu nahi ditugu. Azken finean, Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren hirugarren helburua betetzeko, frogatu nahi dugu jarduera fisikoa denontzat, adin guztietan eta betiko sustatu behar genukeela.



1. irudia. Jarduera fisikoa edozein adinetan egin daiteke.

2. JARDUERA FISIKOAREN ETA ARIKETA FISIKOAREN ONURAK

Jarduera fisikoak eta ariketa fisikoak osasunean dituzten onurak ezagunak ziren antzinatean. Adibidez, idatziz dokumentatuta dago Hipokratesek ariketa fisikoa erabiltzen zuela tratamendu gisa K.a. IV.-V. mendeetan [9]. Hala ere, osasun-onuren lehen proba zientifiko sendoak XX. mendearen er-

dialdekoak dira. Hain zuzen ere, Morris eta lankideek Londreseko autobusetako langileetan ikusi zuten gidariek bihotzeko gaixotasun gehiago zituztela kobratzaileek baino [10]. Gidariek lana eserita egiten zuten, eta kobratzaileak, berriz, bi solairuko autobusetan gora eta behera ibiltzen ziren. Kontuan hartuta bi populazioak beste baldintzetan (adina, egoera sozioekonomikoa, etab.) oso antzekoak zirela, ondorioztatu zuten hilkortasun-diferentziak talde bakoitzaren laneko jarduera fisikoaren arabera zirela. Ordutik hona, ebidentziak pilatu dira, eta, gaur egun, ezaguna da zer onura dituen jarduera fisikoak osasunaren eta ongizatearen esparru anitzetan. Hain zuzen ere, Warburton eta lankideek [11] 2007ko berrikuspenean jaso zuten jarduera fisikoa eraginkorra dela gaixotasun kardiobaskularren, zenbait minbiziren, diabetesaren eta osteoporosiaren prebentzio primarioan (gaixotasunik ez dagoenean) eta sekundarioan (behin gaixotasuna agertzen denean). Gaur egun, egiaztatu da eragin hori beste zenbait patologiatara zabaltu daitekeela; besteak beste, gibleko patologiak [12], dementziak [13] eta gaixotasun psikoafektiboak [14].

Bestalde, ordura arteko ebidentzia bilduz, 2015. urtean, Pedersen eta Saltinek azaldu zuten ariketa fisikoa erabilgarria zela 26 gaixotasun kronikoren tratamenduan ere [15]. Haien artean, nabarmentzekoak dira gaixotasun kardiobaskularrak, neurologikoak, muskulu-eskeletikoak, minbizia, arnas gaixotasunak, diabetesa, dislipemia, osteoporosia eta dementziak. Ariketa fisikoaren onuren mekanismo biologikoak ez daude zeharo finkatuak, eta patologiaz patologia aldagarriak izan daitezke, baina proposatu izan dira zenbait, hala nola odol-fluxuaren hobekuntza, bihotz-zuntzen garapena, mitokondriak ugaritzea, gluzemiaren kontrola, lipidoen oxidazioa, estres oxidatibo baxuagoa edo miokinen jariapena [15, 16, 17]. Nerbio-sistemarekin zerikusia duten onuretan, aurrekoez gain, faktore neurotrofikoek eragindako neuroplastizitatea, sinaptogenesia eta zenbait garun zatiren garapena aipatu dira [13, 18]. Uste da eragin horiek aldaketa epigenetikoen ondorioz gerta daitezkeela neurri batean [19].

Jardueraren eta ariketaren eragina ez da arlo fisikora mugatzen, kognizioan ere sortzen baitituzte onurak. Eragina batez ere ume eta pertsona nagusietan behatu da; heldu gazteetan, aldiz, ebidentziak ez dira hain argiak. Jarduera fisikoak oroimen-gaitasuna, arreta-prozesuak eta kontrol exekutiboak hobetzen ditu [20]. Bestalde, ume aktiboek, sedentarioen aldean, emaitza hobeak lortzen dituzte arretan, ikasketan eta oroimenean [21]. Pertsona nagusietan ere, jarduera fisikoak emaitza hobeak dakartza test kognitiboetan [22]. Aurrerago ikusiko dugunez, horrek guztiak garrantzia izango du zahartzaroko narriadura kognitiboan eta dementzien prebentzioan eta tratamenduan [13].

Bestalde, frogatu da jarduerak eta ariketak eragin nabaria dutela pertsona osasuntsuen eta gaixotasunak dituztenen bizi-kalitatean eta ongizate psikologikoan ere. Oro har, jarduera fisikoak norbere buruarenganako konfiantza eta animo-egoera hobetzen ditu, egonkortasun emozionala ematen du, aserti-

botasuna handitzen du eta estresa kudeatzen laguntzen du [20]. Areago, pertsonalitateari sendotasuna eman diezaioke, eta lotuta dago bizitzaren gaineko asebetetzearekin [23] eta bizitzak pertsonarentzat duen zentzuarekin [24]. Hori guztia dela eta, frogatu da erabilgarria dela depresioaren prebentzioan eta tratamenduan [25]. Patologiaren bat dutenen artean behatu da bihotz-estekasuna [26], diabetesa [27] eta minbizia [28] dutenen bizi-kalitatea hobetu dezakeela. Haien artean, azpimarragarria da ariketa fisikoak bizi-kalitatea hobetzea dakarrela minbizia duten eta jasan duten gaixoetan, gaitzaren eta haren aurkako tratamendu gogorren eragina leuntzen lagundu baitezake [29].

Ikerketa gutxitan konparatu da ariketa fisikoaren eta farmakoen eragin-kortasuna. Hala ere, Nacik eta Ioannidis-ek metaanali si batean ondorioztatu zuten gaixotasun kardiobaskularren prebentzio sekundarioan ariketa fisikoak eta farmakoek hilkortasunean sortzen zituzten onurak ez zirela adierazgarriki ezberdinak [30]. Antzeko emaitzak behatu dira depresioaren tratamenduan [31]. Dena den, oso ikerketa konparatibo gutxi daude, eta, zenbaitetan, emaitzak kontrajarriak dira. Horregatik, egokia ikusten da etorkizunean farmakoak eta ariketa fisikoa konparatzen dituzten ikerketa gehiago egitea.

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) jarduera fisikoko gomendioak eman ditu berriki osasun-onura adierazgarriak lortzeko [32]. Hala, 18 eta 64 urte bitarteko pertsonentzat, astero jarduera aerobikoari 150-300 minutu eskaintzea aholkatzen du, intentsitate moderatuan egiten bada (adibidez, azkar ibiliz), edo 75-150 minutu intentsitate kementsuan egiten bada (adibidez, korrika). Horretaz gain, astean bi aldiz muskulu talde nagusien indarra lantzea gomendatzen da. Dena den, maila horietara iristen ez bada, erakundeek argi uzten dute zerbait egitea, gutxi bada ere, deus ere ez egitea baino onuragarriagoa dela. Bestalde, badirudi gehiago egiteak (aurreko mailak bikoiztu arte) onura gehigarriak dakartzala. Pertsona nagusientzat (> 65 urte), jarduera fisiko aerobikoaren aholkuak berberak dira, baina, erorketak prebenitzeko eta funtzio fisikoa mantentzeko, gomendatzen da osagai anitzeko ariketa fisikoa (indarra, oreka eta aerobikoa barneratzen dituen) astean hiru aldiz egitea. Ume eta nerabeentzat, oro har, jarduera fisiko gehiago gomendatzen da: egunero, batez beste, ordubeteko jarduera moderatu edo kementsua, eta, bizpahiru egunetan, indarraren lan-keta. Azpimarratzekoa da, atal honetan, aipatu diren intentsitateek pertsona bakoitzari egokituak egon behar dutela, bakoitzaren gaitasunen arabera. Aipagarria da, era berean, OMEk gomendatzen duela jarduera fisikoa bultzatzearekin batera egoera sedentarioan igarotzen dugun denbora murriztea eta sedentarismoan etenak egitea. Bukatzeko, OMEren gomendioak Garamen Jasangarrirako Agendaren hirugarren helburuarekin zeharo lerrokatuak daude, argi uzten baitute jarduera fisikoari buruzko aholkuak pertsona guztientzat eta adin guztientzat direla, baita gaixotasun kronikoak eta desgaitasuna dituztenentzat ere [32] (1. taula).

1. taula. Osasunaren mundu erakundearen gomendioak jarduera fisikoari buruz.

Populazio taldea	Gutxieneko maiztasuna	Jarduera fisikoaren intentsitatea			Beste gomendio batzuk**
		Moderatua	Moderatua-kementsua	Kementsua	
5-17 urte ^a	Egunero		60 min (bataz beste)		60 min baino gehiago: osasunerako onura gehiago
	Astean 3 aldiz				Muskuluak eta hezurrak indartzeko jarduerak
	Astero (*)	150-300 min		75-150 min	300 min jarduera moderatua, edo baliokidea: osasunerako onura gehiago
18-64 urte ^b	Astean 2 aldiz	Aurrekoen konbinazio baliokidea			Muskulu-talde nagusiak indartzeko ariketak
		150-300 min			300 min jarduera moderatua, edo baliokidea: osasunerako onura gehiago
				75-150 min	Osagai anitzeko ariketa fisikoa (indarra, oreka eta aerobikoa barneratzen dituena)
> 65 urte ^b	Astean 3 aldiz	Aurrekoen konbinazio baliokidea			Ariketa aerobikoak eta muskuluak sendotzeko eta luzatzeko ariketak
Haurdun dauden emakumeak eta erditu ondokoak ^c	Astean		150 min		

^a Desgaitasuna duten pertsonak bame.
^b Desgaitasuna duten pertsonak eta gaixotasun kronikoak pairatzen dituztenak bame.
^c Kontraindikaziorik ez egotekotan.

* Hiru aukera.
** Sedentarismoa ekidin kasu guztietan.

3. JARDUERA ETA ARIKETA ETA ZAHARTZE-PROZESUA

Zahartzen garen heinean, pertsona gehienek gaitasun fisikoak galtzen dituzte [33]. Badira bi eragile: zahartze-prozesua bera eta adinarekin batera gora doazen sedentarismoa eta jarduera fisikorik eza [34, 35]. Zenbaitetan, «gurpil zoro» batean sartzen gara: jarduera fisiko gutxiago egin, gaitasun fisikoa galdu, jarduera egitean okerrago sentitu, eta, ondorioz, are eta gutxiago egin. Adin batetik aurrera, gurpil zoro hori bereziki arriskutsua da, pertsona nagusiagoetan azkarragoa delako narriadura fisikoa.

Hauskortasuna, neurri batean, adinari lotutako syndrome bat da. Pertsona hauskorrek pertsona sendoek baino arrisku gehiago dute erorketak, ospitaleratzeak, mendekotasuna eta heriotza pairatzeko [36]. Adibidez, gaur egun COVID-19ak sortu duen pandemian, hauskortasunak gaixotasunaren larritasuna eta heriotza-arriskua dakartza [37]. Oro har, pertsona hauskorren bizi-kalitatea ez-hauskorrena baino kaskarragoa da [38]. Hauskortasuna diagnostikatzeko lehen irizpideak Linda Fried eta lankideek proposatu zituzten [39]. Haren arabera, pertsona bat hauskorra da baldin eta bost irizpide hauetatik gutxienez hiru baditu: ahultasuna, jarduera fisiko gutxi, martxaren abiadura motela, nahigabeko pisu-galera eta abaildura.

Dena den, arlo fisikoa ez da zahartzean aldatzen den bakarra. Adinean aurrera joan ahala, funtzio kognitiboak ere narriadura izan dezake [40]. Depresioa [41] eta antsietatea [42] ere ohikoak dira pertsona nagusietan. Asaldura horiek eragina dute pertsonen hauskortasunaren garapenean, eta, maiz, hauskortasun kognitiboa edo psikologikoa ere deskribatu dira. Gaur egun, hauskortasunaren perspektiba multidimentsional eta integrala nagusitzen da [43]. Eredu horretan, hauskortasuna gizakiaren funtzionamenduaren esparru fisiko, psikologiko eta sozialean gizabanakoari eragiten dion egoera dinamikoa da, aldagai sorta baten eraginez sortutakoa eta emaitza kaltegarriak izateko arriskua handitzen duena. Haren prebalentziaren inguruan ez dago adostasunik, erabiltzen den eskalaren arabera aldatzen baita. Fried-en definizioa erabili zuten ikerketen artean, prebalentzia % 4 eta % 17 bitartean zegoen; aldiz, hauskortasunaren definizio integrala erabili zuten ikerketetan, are gehiago alda daiteke, % 4tik % 59ra [43].

Hauskortasunari aurre egiteko, bereziki garrantzitsua da ariketa fisikoa, froga argienak dituen tratamendua delako. Gaur egun, frogatuta dago osagai anitzeko ariketa fisikoko programak direla eraginkorrenak hauskortasuna [44] eta haren ondorioak prebenitu eta tratatzeko. Programa horietan, batez ere indarra, oreka eta erresistentzia lantzen dira. Hauskortasunean duen eraginaz gain, ariketa fisikoak erorketa kopurua eta hilkortasuna murrizten ditu pertsona nagusietan [45]. Interbentzio horiei esker, ospitaleratzeak eta osasunari lotutako kostu ekonomikoa ere murrizten dira, eta bizi-kalitatea hobetzen da [43].

Pertsona gazteagoen artean gertatzen den bezala, jarduera eta ariketa fisikoak zahartze-prozesuan dituen eraginak ez dira arlo fisikora mugatzen. Alderantzizko erlazioa dago fisikoki aktiboa den bizitzaren eta narriadura kognitiboa izateko arriskuaren artean [13]. Alzheimer gaixotasunaren arriskua % 45 murrizten da jarduera fisikoa bizitza osoan egiten bada [46]. Dena den, pertsona nagusietan egin diren 6 hilabete eta 3 urte arteko interbentzioetan ikusi da zahartzaroan soilik egindako ariketa fisikoak ere hobekuntzak eragiten dituela kognizioan [47, 48, 49, 50]. Era berean, erreakzio- eta prozesamendu-abiadurak eta oroimen espaziala hobetzen ditu, eta zenbait garun-atalen bolumena handitzen du [50]. Narriadura kognitiboa edo dementziak garatu dituzten pertsonetan ere, zenbait ikerketak hobekuntzak behatu dituzte. Aipagarria da oroimenaz arduratzen den hipokampoaren bolumena handitzearekin batera hobetzen dela gaitasun kognitiboa [50].

Gazteetan bezala, pertsona nagusietan ere behatu da jarduera fisikoa positiboki lotuta dagoela ongizate psikologikoarekin [51] eta eragin positiboa duela ariketa fisikoak pertsona nagusien zoriontasunean, bakardadean eta bizitzarekiko asebetetze mailan [52]. Parametro horien artean, pertsona nagusietan garrantzi berezia hartu du bakardadeak azken urteetan, are gehiago COVID-19ak eragindako pandemiaren eraginez [53]. Bakardadea prebalentzia handiko gertaera bat da populazio honetan, eta, beste alde batetik, osasun-parametro eta bizi-kalitate okerragoekin lotuta dago [54]. Jarduera fisikorik eza eta bakardadea zuzenki erlazionatuak daude [55]. Bakardadeari aurre egiteko, bereziki eraginkorra izan daiteke taldean egiten den ariketa fisikoa. Badirudi ariketa fisikoko saioetan sortzen diren gizarte-harremanen ondorioz ongizate subjektiboa hobetzen dela [56]. Harreman horiek garrantzitsuak izan daitezke pertsona nagusien bakardade-sentsazioa murrizteko. Arlo horretako beste parametro batzuetan ere —bizi-kalitatean, adibidez—, onura nabariagoak sortzen ditu taldeko ariketa fisikoak etxean norbere kabuz egiten denak baino [57].

4. JARDUERA ETA ARIKETA POPULAZIO ZAURGARRIETAN

Pertsona nagusien artean, hauskortasunaren prebalentzia bereziki altua da zenbait populaziotan. Haien artean, nabarmentzekoak dira ospitaleratutako pertsonak [58] eta egoitzetan [59] bizi direnak.

Pertsona nagusiei ospitaleratzeek galera fisiko eta kognitiboak [60] eragiten dizkiete maiz. Horren ondorioz, paziente horien hauskortasuna eta mendekotasun-arriskua handitu daiteke, eta bizi-kalitatea murriztu. Populazio horretan, ariketa fisikoa erabiltzen duten zenbait ikerketa egin dira, bai ospitaleratuta dauden bitartean, bai ospitaleko alta hartu eta gero ere [61]. Ospitaleratzean ariketa fisikoa eginda, behatu da egoera fi-

siko [62] eta kognitibo [63] hobea lortzen dela alta hartzerako. Nabarmen-tzekoa da hobekuntzak bost eguneko interbentzioak egin eta gero behatu direla aipatutako bi ikerketetan [63]. Ospitaleratzearen ondoren ere hobe-kuntza adierazgarriak daude egoera funtzionalean. Nahiz eta norbere ka-buz etxean eginda onurak lor daitezkeen [64], oro har, emaitzak hobeak dira ariketa fisikoa taldean eta modu gainbegiratuan egiten denean [65]. Bereziki, frogatu da programak taldean egiten direnean bizi-kalitatea gehiago hobetzen dela [66]. Dena den, nahiz eta onurak nabariak izan, ha-rriarria da ospitaleratuak izan diren pertsona nagusiek ariketa fisikoko programetan duten parte-hartzea baxua izatea; izan ere, % 10 ingurukoa da, gure taldeak egindako ikerketa baten arabera [67]. Ikerketa horretan behatu zen zenbait faktore aldagarri —nutrizio-egoera eta etxeko irisgarri-tasuna, besteak beste— direla parte-hartzearen mugatzaile garrantzitsue-nak.

Lehen aipatu bezala, egoitzetan bizi diren pertsonen artean ere preba-lentzia handia du hauskortasunak [59], eta jarduera sedentarioa nagusitzen da haien egunerokotasunean [68]. Orain dela gutxi arte, lan gutxitan azal-tzen zen zer onura dituen ariketa fisikoak populazio horretan [69]. Dena den, interbentzio gehienak intentsitate baxukoak eta indibidualizatu gabe-koak ziren. Azkenaldian, osagai anitzeko eta intentsitate moderatuko ari-keta progresibo eta indibidualizatua ikertzen duten lanak argitaratu dira. Interbentzio horietan, beste populazio taldeetan gertatzen dena baieztatu da. Hau da, ariketa fisikoak hobekuntzak eragiten ditu arlo fisiko [70], kognitibo [71] eta emozionalean eta bizi-kalitatean [72]. Aldi berean, egoitzetan bizi diren pertsona nagusiei dagokienez, erorketak, hauskorta-suna eta hilkortasuna murrizteko balio dezake [73]. Hala ere, halako pro-gramak ez dira gai egoitzetako pertsonen eguneroko jarduera fisikoa area-gotzeko, eta lortutako hobekuntzak galdu egiten dira interbentzioak eteten direnean.

COVID-19ak bereziki eragin die egoitzetako biztanleei, bai gaixotasu-nak ondorio larriak izan dituelako, baita kutsadura ekiditeko bakartze-neu-ri zorrotzak hartu direlako ere. Oro har, kanpoko bisitak ia erabat murriztu dira, taldeko jarduerak bertan behera utzi, eta, askotan, pertsonak beren lo-geletan bakartuta gelditu dira. Neurri horien ondorioz, haien mugikorta-suna murriztu da, eta bakartasun-sentsazioa eta bakardadea handitu [74]. Orain arte, egoitzetako pertsona nagusiek itxialdian jasan duten aldaketa fi-siko eta kognitiboak aztertu dituen lanik ez dugu topatu. Dena den, egoitze-tako arduradunek diotenez, narriadura nabaria izan da. Hau da, une hone-tan, egoiliarrek inoiz baino hauskortasun maila altuagoa izan dezakete, eta, lehen aipatu bezala, COVID-19k ondorio larriagoak ditu pertsona hausko-rretan sendoetan baino [75]. Beraz, egoera honetan, egokia dirudi pertsona horien funtzionaltasuna mantentzeko neurriak hartzea ariketa fisikoko pro-grama egokituen bidez edo jarduera fisikoa sustatuz. Gure taldeak itxial-

dian egindako esperientzia pilotu batean frogatu du bideokonferentziaz zuzendutako ariketa fisikoko saioak egingarriak direla [76]. Saiotetan, gidariaren eta parte-hartzailearen artean lotura zuzena zegoen pantailaren bidez. Etorkizunean jorratzeko bide bat dela iruditzen zaigu, egoiliarrek edo etxean dauden eta ateratzeko zailtasunak dituzten pertsona nagusiek ariketa fisikoa egitea errazteko.

5. ETORKIZUNeko ERRONKAK

Gaur egun, ondo frogatuta dago jarduerak eta ariketak eragin positiboa dutela pertsona gehienen osasun eta ongizatean. Une honetan, zera zehaztu behar genuke: zer ariketa edo jarduera mota den egingarriena eta egokiena pertsona bakoitzarentzat ikuspegi fisiko, psikologiko eta sozialetik.

Bestalde, nahiz eta jarduera fisikoaren onurak argiak diren, oraindik pertsona inaktibo asko dago, bereziki populazio zaurgarrienetan. Talde horretan sartuko genituzke fisikoki edo mentalki zaurgarriak direnak edo pertsona nagusi hauskorrek, besteak beste. Pertsona horiek zenbait arazo dituzte ariketa fisikoa egiteko. Batzuk berezkoak dira; haien artean nabariena beren ustez dituzten muga funtzionalak eta beren osasunaren gaineko iritzi kaskarra [77], ez baitute beren burua gai ikusten ariketa fisikoko programa batean parte hartzeko. Areago, zenbaitek ez dute uste jarduera fisikoa eurentzat egokia denik [78]. Bi arazo horiei aurre egiteko, zenbait neurri proposatu dira [77, 78]: alde batetik, heziketa, hau da, pertsona nagusiak jarduera eta ariketa fisikoaren onurez jabetzeko ahalegina egin behar da. Horretan, senideek eta haren inguruko osasun-eta gizarte-profesionalek funtzio garrantzitsua dute. Bestetik, programen indibidualizazioa, banakoen behar fisiko zein emozionaletara egokitzea, eta progresibotasuna, maila baxuetatik hasi eta urratsez urrats intentsitatea edo bolumena handitzea. Beste batzuk kanpokoak dira; haien artean, jardueren eskuragarritasuna eta eredia, giroa eta tokia gustuko izatea. Arazo horiei aurre egiteko, beharrezkoa da irisgarritasuna bermatzea eta inguruneke baldintzak pertsona nagusien gustukoak izatea [77, 78]. Bi eredu nagusi daude ariketa fisikoko eskaintzetan: taldean, etxetik kanpo, edo etxean, norbere kabuz. Taldeka egiteak gizarteratzen eta sare soziala handitzen laguntzen du (2. irudia); etxean egiteak, berriz, malgutasuna ematen du. Kontu horretan ez dago adostasunik pertsona nagusien artean, eta zenbaitek taldeko eredia lehenesten dute; beste batzuek, aldiz, etxekoa. Nahiz eta taldeko ariketak onura gehiago dituen [65], frogatu da norbere kabuz etxean egiten dena ere onuragarria dela [64]. Hori guztia dela eta, egokia dirudi eskaintza ahalik eta zabalena izatea, norberak nahi duen eredia aukeratu dezan.



2. irudia. Taldeka egiten den jarduera fisikoak onura gehigarriak ditu.

Frogatu da egoera sozioekonomikoaren ondorioz zaurgarriak direnek ere jarduera fisiko gutxiago egiten dutela, bereziki aisialdiari lotutakoa [79]. Baliabide egokien eskuragarritasun falta, eremu naturalena zein azpiegiturena, baldintzatzaile garrantzitsua da [80]. Egoera sozioekonomikoaren eta jarduera fisikoaren arteko lotura finkatuagoa dago pertsona helduetan umeetan baino [81]. Dena den, frogatu da umeetan ere lotura dagoela egoera sozioekonomikoaren eta sasoi fisikoaren artean [82]. Egoera sozioekonomikoa beste ohitura osasuntsu batzuekin ere lotuta dago [83, 84]. Horrek neurri batean azaldu dezake herri bereko eskualdeen arteko bizi-itzaropenaren diferentzia. Erresuma Batuan, adibidez, frogatu da aldea 10 urtekoa izan daitekeela [85].

Ondorioz, datu horiek guztiak kontuan hartuz, Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agendako hirugarren helburua lortzeko, ahalegin berezia egin behar litzateke pertsona guztiei eta adin guztietan jarduera fisikoaren onurak helarazteko eta modu seguru eta ekonomikoan banakoari egokitutako jarduera fisikoa egiteko aukera zabala eskaintzeko. Fisikoki, psikologikoki, kognitiboki edo sozioekonomikoki zaurgarriak direnei arreta berezia eskaini beharko zaie, jarduera fisikoa egiteko zailtasun handiagoak dituzte eta.

ESKER ONA

